

**2017KO AURREKONTUKO AZALPEN
TXOSTENA**

Kabia 2015eko maiatzean hasi zuen bere ibilbide erreala, plantillako lehen pertsona lanean hasi zenean, eta pixkanaka hasierako lau egoitza bere gain hartzen hasi zenean, bateratze prozesuaren lehen urratsak emanez. Bateratzea, urratsez urrats planifikatutako prozesu bat izango da, elkarlana eta adostasuna oinarri duen metodologia erabiliz. Prozesu hori graduala izango da, egoitza guztiak Kabian integratuak egon beharko dira bateratzea behar bezala egin ahal izateko.

Kabiako 2016ko aurrekontua 7.724.061 eurokoa da. Aurrekontu horrekin, lau egoitza kudeatzen ditu. Plantillan sei langile daude: hiru zerbitzu zentraletan (gerentea, ekonomilaria eta administraria) eta hiru Zumaiaiko egoitzan (Gizarte langilea zuzendaritza lanak egiten dituen, administrari laguntzailea eta sukaldaria). Gizarte Politika Departamentuaren aldetik, kontratazio arloko eta bestelako gaiei buruzko aholkularitza eta laguntza juridikoa jasotzen du.

2017rako Kabian beste lau egoitza sartzea aurreikusten da. Integrazio hori graduala izango dela, urtean zehar gauzatuko dena; alde batetik, integrazio hori egoitzaz-egoitza landu eta adostu beharko delako; eta bestetik, Kabiako zerbitzu zentraletako egitura osatzen joan beharko delako egoitzetatik pasako diren langileekin edo/eta lehentasuna duten lanpostuetako hautaketa prozesuen bidez. Guzti horrek, egoitzen integrazioaren orden kronologikoa eta momentua baldintzatuko du. Oro har, bi egoitza lehen seihilekoan eta beste bi bigarrean integratzea aurreikusten da.

**INFORME EXPLICATIVO DEL
PRESUPUESTO 2017**

Kabia comenzó en mayo de 2015 con su trayectoria real, cuando la primera persona de plantilla empezó a trabajar, y progresivamente fue asumiendo la gestión de las primeras cuatro residencias, dando los primeros pasos del proceso de convergencia. Este proceso de convergencia será un proceso planificado paso a paso, utilizando una metodología basada en la cooperación y el consenso. Dicho proceso será gradual, y todas las residencias deberán estar integradas en Kabia para que el proceso de convergencia se realice correctamente.

El presupuesto de Kabia es de 7.724.061 euros para el año 2016. Con ese presupuesto gestiona cuatro residencias. En la plantilla hay seis trabajadoras y trabajadores: tres en servicios centrales (gerenta, economista y administrativo) y tres en la residencia de Zumaia (trabajadora social que desempeña labores de dirección, auxiliar administrativa y cocinero). Recibe asesoramiento y apoyo jurídico del Departamento de Política Social en cuestiones de contratación laboral y otros temas.

Se prevé la integración de otras cuatro residencias para el año 2017. La integración de las residencias se realizará de modo gradual, a lo largo de cada año. Para ello, por un lado, será necesario trabajar y acordar en cada una de las residencias dicho proceso; y por otro, es imprescindible que Kabia vaya completando la estructura de sus servicios centrales, mediante el personal proveniente de las residencias y/o mediante procesos selectivos con dicha finalidad para aquellos puestos que ha identificado como prioritarios. Todo ello condicionará el orden cronológico y el momento de la integración en Kabia. Se prevé que dos residencias se integren el primer semestre y otras dos el segundo.

Prozesu guzti honetan, Kabiako 2016-2019 plan estrategikoak norabidea ezarri du, ildo estrategiko bakoitzean helburu batzuk definituz:

1. ildoak: erabiltzaileak. Erabiltzailea erdigunean duen eredia sortu eta aplikatzeko helburua du Kabiak. Erabiltzaileen autonomia pertsonala eta duintasuna bultzatu, eta beraien eskubideak errespetatuz eta bermatuz.

2. ildoak: pertsonak (langileak). Kabiak pertsonen parte hartzea eta motibazioa indartzeko erronka du. Hori dela eta, bateratze prozesua egoitzetako langileekin elkarlanean egitea izango du erronketako bat; azken hilabete hauetan erabilitako metodologia (elkarlana eta adostasuna) jarraituz, egoitza desberdinetako profesionalekin proiektu eta helburu komunak gauzatu beharko dira.

3. ildoak: kudeaketa. Kabiak Aurrerabide kudeaketa aurreratua eredia aukeratu du; etengabeko hobekuntzan eta emaitzetara zuzendutako kudeaketan oinarrituta, komunikazio irekiarekin eta gardena, eta barne eta kanpo eragile desberdinekin koordinatuta.

4. ildoak: iraunkortasuna eta berrikuntza. Erakundea eta bere jardueren iraunkortasun soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa eta horretarako ezinbestekoa den berrikuntza izango du Kabiak laugarren ildo gisa datozen urteetan.

5. ildoak: gizartea. Aukera berdintasunarekiko, emakume eta gizonaren arteko berdintasunarekiko, hizkuntza berdintasunarekiko, gardentasunarekiko konpromisoa eta interes taldeekin aliantzak garatzea izango du Kabiak beste erronketako bat. Norabide horretan bere eredia lantzen joan beharko da, kudeaketa sisteman integratua egongo dena.

En todo este proceso, el plan estratégico 2016-2019 de Kabia ha establecido una dirección determinada, definiendo objetivos concretos en cada una de sus líneas estratégicas:

1ª línea estratégica: personas usuarias. Kabia tiene como objetivo principal crear y aplicar un modelo que coloca a la persona usuaria en su núcleo central. Fomenta la autonomía personal y la dignidad de la persona usuaria, respetando y garantizando sus derechos.

2ª línea estratégica: las personas (los y las trabajadoras). Kabia tiene como reto fomentar la participación y la motivación de las personas. Debido a ello, uno de sus retos principales consistirá en ejecutar el proceso de convergencia junto con las y los trabajadores de las residencias, a través de la colaboración y el consenso. Siguiendo esa línea estratégica, deberán ejecutarse proyectos y objetivos comunes con los y las profesionales de las diferentes residencias.

3ª línea estratégica: gestión. Kabia ha optado por el modelo de gestión avanzada Aurrerabide basado en la mejora continua y en la gestión dirigida a los resultados, con una comunicación abierta y transparente, y coordinada con los diferentes agentes tanto internos como externos.

4ª línea estratégica: sostenibilidad e innovación. La sostenibilidad social, medioambiental y económica de la entidad y sus actividades, y la innovación imprescindible para todo ello constituyen la cuarta línea estratégica de Kabia para los próximos años.

5ª línea estratégica: la sociedad. El compromiso con la igualdad de oportunidades, la igualdad entre hombres y mujeres, la igualdad lingüística y la transparencia, y crear y desarrollar alianzas con los diferentes grupos de interés constituirá otro de los retos de Kabia. Por ello, deberá ir elaborando su modelo en esa dirección que estará integrado dentro del sistema de gestión.

Aurretik esandako 2017ko aurrekonturako kalkulatzeko garaian, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gizarte Politika Departamentuak (Kabia foru organismo autonomoa atxikituta dagoena) finkatutako irizpideak kontuan izan dira.

Para calcular lo mencionado previamente de cara al presupuesto de 2017, se han tenido en cuenta las directrices establecidas por el Departamento de Hacienda y Finanzas y los criterios establecidos por el Departamento de Políticas Sociales al que está adscrito el organismo autónomo foral Kabia.